

FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak behar bezala funtziona dezan, baliabide ezberdinak erabiliko ditugu.

- Alde batetik, **ordenagailuen sare ona** edukiko dugu, 600 mb-ko Internet sarea, zuntzaren bidez ibiliko dena, gure aplikazioan laguntza eskaintzeko eta guk konpondu ditugun arazoak konpondu ahal izateko. Beste alde batetik, segurtasun-sistema bat edukiko dugu, gure aplikazioan edozein pertsona ez sartzeko. .
- Baliabide horiez gain, **lokal bat** edukiko dugu, Internet sare egoki batekin bertatik lan egiteko. Lokal horretan altzariak egongo dira (mahaiak, aulkiak...) eta langileok (Uxue, Maddi eta Eneko) lan egiteko leku bat egongo da. Gainera bideoak grabatzeko eta Streaming-ak egiteko espazioa ere izango dugu, bakoitzak behar duen material egokiarekin. 80m2 edukiko dituen lokal bat, komuna barne eta lan egiteko erabiliko ditugun altzariez beteko dugu.
- Giza baliabideen artean, **Uxue finantza arloetan** arituko da, ekonomiako ikasketak egin ondoren finantza espezializatu zelako, **Maddi bezeroekiko harremanetan eta publizitatean**, marketinero ikasketak egin dituelako eta **Eneko** aplikazioak izan ditzakeen **arazoak konpontzeko**, ingeniari informatikoko ikasketak dituelako.
- Azkenik **finantza baliabideak ere beharko** ditugu, hainbat iturrien bidez lortuko duguna. Ez da oso proiektu garestia eta ez da inbertsio handirik egin behar. Handitzen goazen heinean, gure finantza baliabideak handiagoak izango dira eta aurrezkiekin egingo dugu hasierako inbertsioa.

FUNTSEZKO JARDUERAK

ZER JARDUERA EGIN BEHAR DITUGU IDEIA AUREERA ATERATZEKO?

EKOIZPENA	<ul style="list-style-type: none">• Bideoak sortu• Azalpenak prestatu (idatziz, PowerPoint)• Bideodeiak prestatu• Streaming-ak egin	GARRANTZITSUA (bideo eta azalpenen bidez ikastea gure helburua delako)
ARAZOAK KONPONTZEA	Eneko teknologian Uxue diru kontuetan Maddi bezeroekiko harreman eta publizitatean <u>Sortuko diren arazo berriak guztiok batera konponduko ditugu</u>	FUNTSEZKOA (funtzio hau gabe ezin da proiektua aurrera atera, funtsezkoa da aplikazioa martxan egoteko)
PLATAFORMA	Webgunea eta sare sozialak kudeatzea eta kontrolatzea	GARRANTZITSUA (kudeaketa ona izatea beharrezkoa da emaitza onak edukitzeko)